

San Pankrazio eguneko txapelketak

2013/05/10

Giro onean aritu ziren atzokoan langile eta ikasleak kiroldegi zein kantuan. Areto futbolean 5 talde, MUSEan 11 bikote, pokerrean 6 lagun eta partxisean 4 bikote aritu ziren, guztira 75 bat lagun, saskibaloiko taldeek berriz, kale egin zuten azken momentuan.

10:00etan hasi ziren txapelketak eta eguerdirarte luzatu ziren gehienak. Emozioa nabari zen kantuan Partxiseko txapeldunen txalo eta zalaparta artean. Museko lagunak 13:00 arte ibili ziren enbido eta hordagoka eta areto futbolekoak blai eginda baina gustora aritu ziren, pike eta gol artean.

Hurrengo urtean gehiago!

Eskerrik asko parte hartzaile guztiei!



MUSEko finalistak